

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 762/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko uztailaren 9koa, Estatu kideek akuikulturari buruzko estatistikak aurkezteari buruzkoa eta 788/96 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 762/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 9 de julio de 2008, sobre la presentación de estadísticas por parte de los Estados miembros y por el que se deroga el Reglamento (CE) n° 788/96» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 218/1 de 13/8/2008)

762/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 218/1, 2008/8/13koa)

*(EE/Euratom Tratatuen arabera aplikatutako egintzak; horien argitalpena ez da derrigorrezkoa)*

ERREGELAMENDUAK

**762/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,  
2008ko uztailaren 9koa,**

**Estatu kideek akuikulturari buruzko estatistikak aurkezteari buruzkoa eta 788/96 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena.**

**(Testu egokia EEeri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua eta, bereziki, 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(1)</sup>,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Batzordearen 788/96 (EE) Erregelamendua, 1996ko apirilaren 22koak, estatu kideek akuikultura-ekoizpenari buruzko estatistika-datuak aurkezteari buruzkoak <sup>(2)</sup>, xedatutakoaren arabera, estatu kideek beren akuikultura ekoizpen-bolumenari buruzko urteko datuak aurkeztu behar dituzte.

(2) Erkidegoko arrantza-ekoizpen osoan akuikulturak gero eta garrantzia handiagoa duenez, jarduera horri buruzko datu gehiago behar dira, sektore hori arrantza-politika bateratuaren esparruan modu arrazionalen kudeatu eta garatu ahal izateko.

(3) Akuikultura-jardueretarako haztegiak gero eta garrantzitsuagoak direnez, horiei buruzko datu xehatuak behar dira, era horretan sektorea behar bezala kontrolatu eta modu egokian kudeatzeko, betiere arrantza-politika bateratuaren esparruan.

(4) Akuikultura-produktuen merkatua aztertu eta ebaluatzeko, ekoizpenaren bolumenari eta balioari buruzko informazio gehiago behar da.

(5) Industria horrek ingurumena errespetatzen duela bermatzeko, sektore horren egiturari eta bertan erabiltzen diren teknologiei buruzko informazioa behar da.

(6) Erregelamendu honek 788/96 (EE) Erregelamendua indargabetzen du.

(7) 788/96 (EE) Erregelamenduan aplikagarria zen erregimenetik Erregimen honetara arazoz gabeko trantsizio bat bermatzeko, Erregelamendu honek hiru urte arteko behin-behineko epea emango die estatu kideei, egokitzapen handiak egin behar badira erregelamendua beren herrialdeko estatistika-sisteman aplikatzeko, eta horrek arazo praktiko handiak sor baditzake.

(8) Erregelamendu honen helburua akuikultura-sektoreari buruz EB mailako estatistika-sistema bat sortzeko esparru juridiko bateratua sortzea denez, estatu kideek ezin dute helburu hori beren kabuz lortu, eta beraz, EB mailan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak, Tratatuen 5. artikuluan xedatutako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki, helburu hori lortzeko beharrezko neurriak har ditzake. Artikulu horretan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz harago.

---

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko abenduaren 31koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(2) L 108 EO, 1996.5.1ekoa, 1. or. Batzordearen 1882/2003 [EE] Erregelamendua (L 284 EO, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(9) Batzordearen 322/97 (EE) Erregelamendua, 1997ko otsailaren 17koa, Erkidegoko estatistikari buruzkoa <sup>(1)</sup>, arrantzaren esparruko estatistikentzako erreferentzia-esparrua da. Hain zuzen ere, erreferentzia-esparru horretan eskatzen da inpartzialtasun, fidagarritasun, egokitasun, errentagarritasun, estatistika-sekretu eta gardentasunaren printzipioak betetzea.

(10) Estatistika-datuak jaso eta jakinaraztea funtsezko tresna da arrantza-politika bateratua modu egokian kudeatzeko.

(11) Erregelamendu hau gauzatzeko beharrezko neurriak onartu behar dira Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera, hain zuzen ere Batzordeari esleituriko gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituenaren arabera <sup>(2)</sup>.

(12) Bereziki, komenigarria da Batzordeari Erregelamendu honetako eranskinetako aldaketa teknikoak egin ahal izateko eskumenak ematea. Neurri horiek orokorrak direnez, eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenez, eta batzuetan funtsezkoak ez diren elementu berriak ezartzen dituztenez, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan aurreikusitako kontrol-erregelamendurako prozeduraren arabera egingo dira.

(13) Batzordeak Kontseiluaren 72/279/EEE Erabakiaren arabera sortutako nekazaritzako estatistika-komite iraunkorraren laguntza izango du <sup>(3)</sup>.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Estatu kideen betebeharrak**

Estatu kideek beren lurraldean garatutako akuikultura-jarduera guztiei buruzko estatistikak aurkeztuko dizkio Batzordeari, bai ur gezan bai ur gazian egindakoei buruzkoak.

### *2. artikulua*

#### **Definizioak**

1. Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) «Erkidegoko estatistikak»: 322/97 (EE) Erregelamenduko 2. artikuluan xedatutakoak.
- b) «Akuikultura»: Kontseiluaren 2006ko uztailaren 27ko 1198/2006 (EE) Erregelamenduan, Europako Arrantza Funtzari buruzkoan <sup>(4)</sup> xedatutakoa.
- c) «Harrapaketan oinarritutako akuikultura»: ale batzuk ingurune naturalean harrapatu ondoren, ale horiek akuikulturaren erabiltzea.
- d) «Ekoizpena»: lehen salmentako akuikulturari esker lortutako ekoizpena, arraina saltzen duten haztegi-tako ekoizpena barne.

2. Erregelamendu honetako gainerako definizioak I. eranskinean daude zehaztuta.

### *3. artikulua*

#### **Estatistikak biltzea**

1. Estatu kideek inkestak edo estatistikoki balioztatutako beste metodoak erabiliko dituzte, gutxienez ekoizpen-bolumen osoaren % 90a edo haztegi-tako ekoizpen-kopurua biltzeko, 4. atalean xedatutakoa eragotzi gabe. Ekoizpen osoaren gainerakoa kalkulatzeko aukera dago. Ekoizpen osoaren % 10 baino gehiago zenbatetsi ahal izateko, salbuespen-eskaera bat aurkeztu ahal izango da, 8. artikuluan xedatutako baldintzei jarraiki.

2. Inkestetan hainbat iturri erabili ahal izateko, iturri horien kalitate estatistikoari buruzko ebaluazio bat aurkeztu beharko da.

---

(1) L 52 EO, 1997.2.22koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 [EE] Erregelamenduak aldatu zuen Erregelamendua.

(2) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or) aldatutako Erabakia.

(3) L 179 EO, 1972.8.7koa, 1. or.

(4) L 223 EO, 2006.8.15koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

3. 1.000 tona baino gutxiagoko urteko ekoizpen osoa duten estatu kideek ekoizpen osoaren datu zenbatetsien laburpen bat aurkez dezakete.

4. Estatu kideek espezieen arabera sailkatuko dute ekoizpena. Hala ere, espezie bakoitzaren ekoizpena 500 tona baino gehiagokoa ez bada, eta estatu kidearen ekoizpen-bolumenaren % 5 baino gutxiago bada, zenbatetsi eta metatu egin daiteke. Halaber, espezie horien haztegiatako ekoizpena aleka ere zenbatetsi daiteke.

### *4. artikulua*

#### **Datuak**

Datuak erreferentziatzko urte naturalari buruzkoak izango dira, eta informazio hau emango dute:

- a) urteko akuikultura-ekoizpena (bolumen eta aleko balioan);
- b) harrapaketan oinarritutako akuikulturaren urteko sargaiak (bolumen eta aleko balioan);
- c) haztegiatako urteko ekoizpena;
- d) akuikultura-sektorearen egitura.

### *5. artikulua*

#### **Datuak aurkeztea**

1. Estatu kideek Batzordeari (Eurostat) aurkeztuko dizkiote II., III., eta IV. eranskinetan aipatutako datuak, erreferentziatzko urte naturala bukatu eta hurrengo hamabi hilabeteak igaro baino lehen. Erreferentziatzko lehen urte naturala 2008 izango da.

2. 2008ko datuak oinarritzat hartuz, handik aurrera, hiru urtez behin, estatu kideek Batzordeari (Eurostat) aurkeztu beharko dizkiote akuikultura-sektorearen egiturari buruzko datuak (V. eranskinean aipatutakoak), erreferentziatzko urte naturala bukatu eta hurrengo hamabi hilabeteak igaro baino lehen.

### *6. artikulua*

#### **Kalitatea ebaluatzea**

1. Estatu kideek aurkeztutako datuen kalitateari buruzko urteko txostena aurkeztu beharko diote Batzordeari (Eurostat).

2. Datu horiek aurkeztean, estatu kideek metodologia-txosten xehatua aurkeztu beharko dute. Txosten horretan, estatu kideek azaldu beharko dute datuak nola atera eta bildu ziren. Txosten horrek informazio zehatza jaso beharko du laginketa-teknikei, zenbatespen-metodoei eta inkestetan erabilitako iturri ezberdinei buruz, baita horien bidez egindako zenbatespenen kalitateari buruzko ebaluazioa ere. VI. eranskinean ageri da metodologia-txostena egiteko proposatutako formatua.

3. Batzordeak txostenak aztertuko ditu, eta ondorioak dagokion komiteari aurkeztuko dizkio, 72/279/EEE Erabakiaren arabera sortutako nekazaritza komite iraunkorrean.

### *7. artikulua*

#### **Behin-behineko epea**

1. Erregelamendu hau aplikatzeko, 10. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, estatu kideek urte zibil osoetako behin-behineko epe bat eduki dezakete, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, baldin eta Erregelamendu hau estatu mailako sistema estatistikoetan aplikatzean, bertan egokitzapen handiak egin behar badira eta horrek arazo praktiko handiak sortzen baditu. Behin-behineko epe hori hiru urtekoa izango da gehienez.

2. Horretarako, estatu kideek beharrezko eskabidea aurkeztu beharko diote Batzordeari, behar bezala justifikatuta, 2008ko abenduaren 31 baino lehen.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### *8. artikulua*

#### **Salbuespenak**

1. Herrialde bateko agintarientzat akuikultura-sektore jakin bat estatistiketan sartzeko, sektore horren garrantziarekin konparatuta oztopo neurrigabeak badituzte, albuespen bat eman daiteke, betiere 10. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako kudeaketa-prozedura erabiliz.

Salbuespen horren bitartez, estatu kide batek estatistiketatik kanpo utz ditzake sektore horri buruzko herrialdeko datuak, edo bestela, zenbatespen-metodoak erabil ditzake ekoizpen osoaren % 10 baino handiagoak diren datuak emateko.

2. Estatu kideek edozein albuespen-eskaera babestuko dute, eta eskaera horiek datuak lehen aldiz aurkezteko epea amaitu baino lehen egin beharko dira, Batzordeari Erregelamendu hau aplikatzeko zein arazo dituzten zehazten duen txosten bat bidaliz.

3. Datuak biltzeko egoera aldatzean, herrialde bateko agintariak espero gabeko oztopoak badituzte, estatu kideek behar bezala justifikatutako albuespen-eskaera bat egin ahal izango dute, datuak lehen aldiz aurkezteko epea amaitu baino lehen.

### *9. artikulua*

#### **Xedapen teknikoak**

1. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak onartuko dira, baita erregelamendu hau osatzeko balio duten neurriak ere, hain zuzen ere eranskinetako aldaketa teknikoek buruzkoak, erregelamendu honetako 10. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako kontrol-prozeduraren arabera.

2. Estatistikak aurkezteko formatua kudeaketa-prozeduraren arabera onartuko da, 10. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutakoan.

### *10. artikulua*

#### **Komitearen prozedura**

1. Batzordeak nekazaritzako estatistika-komite iraunkorraren laguntza izango du.

2. Artikulu hau aipagai den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikulua izango dira aplikagarri, Erabaki horren 8. artikuluan xedatutakoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluan 3. paragrafoan adierazitako epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1., 4., eta 7. paragrafoak aplikatzekoak izango dira, 8. artikuluan xedatutakoa betez.

### *11. artikulua*

#### **Ebaluazio-txostena**

Gehienez 2011ko abenduaren 31n, eta gero hiru urtez behin, Batzordeak ebaluazio-txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentu eta Kontseiluari, Erregelamendu honen arabera bildutako estatistikei buruz, eta bereziki, estatistika horien egokitasun eta kalitateari buruz.

Txosten horretan aztertuko da datuak biltzeko eta estatistikak egiteko erabilitako sistemaren errentagarritasuna, eta estatu kideen lan-zama ahalik eta gehien gutxitzeko eta datuen erabilgarritasun nahiz kalitatea hobetzeko jardunbide onenak zein diren azalduko da.

### *12. artikulua*

#### **Indargabetzea**

1. 3. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, indargabetuta geratzen da 788/96 (EE) Erregelamendua.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Indargabetutako erregelamenduari buruz egindako erreferentziak, hemendik aurrera Erregelamendu honi buruzkoak direla joko da.

3. Erregelamendu honetako 13. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, 7. artikulua araberaz, egokitzapenak egiteko behin-behineko epea duten estatu kideek 788/96 (EE) Erregelamenduko xedapenak aplikatuko dituzte epe horretan zehar.

*13. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu den egunetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu hau aplikagarri izango da 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon egin, 2008ko uztailaren 9an.

*Europako Parlamentuaren izenean*

*Presidentea*

*H.-G. PÖTTERING*

*Kontseiluaren izenean*

*Presidentea*

*J.-P. JOUYET*

## ANEXO I

**Definiciones que deben utilizarse en la presentación de datos sobre acuicultura**

1. «Agua dulce»: agua que tenga un grado de salinidad constante inapreciable.
2. «Agua salada»: agua cuya salinidad sea considerable. Puede ser agua con una salinidad constantemente elevada (por ejemplo, el agua marina) o con una salinidad considerable pero cuyo nivel no sea constantemente elevado (por ejemplo, el agua salobre); la salinidad puede sufrir variaciones periódicas por afluencia de agua dulce o agua salada.
3. «Especies»: especies de organismos acuáticos identificados mediante el código internacional alfa-3 definido por la FAO (lista ASFIS de especies para los fines de estadísticas de pesca).
4. «Principales zonas de la FAO»: zonas geográficas identificadas mediante el código internacional alfa-2 definido por la FAO (Manual del CWP de las normas de estadística de la pesca. Sección H: zonas de pesca para fines estadísticos). Las principales zonas de la FAO cubiertas a efectos del presente Reglamento son las siguientes:

Código de	Área
01	Aguas interiores (África)
05	Aguas interiores (Europa)
27	Atlántico nororiental
34	Atlántico centro-oriental
37	Mediterráneo y Mar Negro
...	Otras zonas (a precisar)

5. «Estanques»: masas relativamente poco profundas y generalmente pequeñas de agua estancada o agua con bajo índice de renovación, muy a menudo formadas artificialmente, aunque también puede aplicarse a masas de agua naturales, lagunas o pequeños lagos.
6. «Criaderos y viveros»: lugares de reproducción, incubación y cría artificial para las primeras etapas de la vida de los animales acuáticos. Para fines estadísticos, los criaderos se limitan a la producción de huevos fecundados. Se considera que las primeras fases de vida de los animales acuáticos se han producido en viveros.
7. «Cercados y corrales»: superficies de agua delimitadas por redes, mallas u otras barreras que permiten que el agua circule libremente. La particularidad de los cercados es que ocupan toda la columna de agua que se extiende desde el fondo hasta la superficie. Por lo general, los corrales y cercados abarcan un volumen de agua relativamente importante.
8. «Jaulas»: estructuras cerradas cuya parte superior está abierta o tapada, construidas con redes, mallas o cualquier material permeable que permita el flujo natural de agua. Estas estructuras pueden ser flotantes o estar suspendidas o fijadas al fondo de manera que el agua pueda circular libremente.
9. «Tanques y canalizaciones»: unidades artificiales construidas por encima o por debajo del nivel del suelo, que permiten que circulen grandes flujos de agua o con un alto índice de renovación de agua y un medio ambiente muy controlado, pero sin recirculación del agua.
10. «Sistemas de recirculación»: sistemas en los que el agua se recicla después de un determinado tratamiento (por ejemplo, filtrado).
11. «Transferido a un medio controlado»: liberación intencional para otros fines de acuicultura.
12. «Liberación en el medio natural»: liberación intencional para la repoblación de ríos, lagos y otras masas de agua con fines distintos de la acuicultura. Los animales acuáticos liberados pueden ser capturados mediante actividades de pesca.

13. «Volumen»:
- a) en el caso de los peces, moluscos, crustáceos y otros organismos acuáticos, el equivalente de peso en vivo del producto; en el caso de los moluscos, el peso en vivo incluirá el peso de la concha;
  - b) para las plantas acuáticas, el peso en fresco del producto.
14. «Valor unitario»: valor total de la producción (sin el impuesto sobre el valor añadido facturado) expresado en moneda nacional, dividido por el volumen total de la producción.
-



## ANEXO II

Producción acuícola exceptuando los criaderos y viveros <sup>(a)</sup>

País:

Año:

Especies producidas				Área principal de la FAO	Agua dulce		Agua salada		Total	
Código alfa-3	Nombre común	Nombre científico	Volumen (toneladas métricas)		Valor unitario (moneda nacional)	Volumen (toneladas métricas)	Valor unitario (moneda nacional)	Volumen (toneladas métricas)	Valor unitario (moneda nacional)	
PECES										
Estanques										
Tanques y canalizaciones										
Cercados y corrales										
Jaulas										
Sistemas de recirculación										
Otros métodos										
CRUSTÁCEOS										
Estanques										
Tanques y canalizaciones										
Cercados y corrales										
Otros métodos										
MOLUSCOS										
En el fondo										
Por encima del fondo										
Otros métodos										
ALGAS										
Todos los métodos										

País:

Año:

Especies producidas				Área principal de la FAO	Agua dulce		Agua salada		Total	
Código alfa-3	Nombre común	Nombre científico	Volumen (toneladas métricas)		Valor unitario (moneda nacional)	Volumen (toneladas métricas)	Valor unitario (moneda nacional)	Volumen (toneladas métricas)	Valor unitario (moneda nacional)	
HUEVOS DE PEZ (para consumo) <sup>(b)</sup>										
Todos los métodos										
OTROS ORGANISMOS ACUÁTICOS										
Todos los métodos										

<sup>(a)</sup> Excepto las especies para acuarios y las ornamentales.

<sup>(b)</sup> Los huevos destinados al consumo, mencionados en la presente partida, se refieren únicamente a los huevos extraídos y destinados para el consumo en la primera venta.

ANEXO III

Insumos de la acuicultura basada en la captura <sup>(a)</sup>

País: \_\_\_\_\_ Año: \_\_\_\_\_

Código alfa-3	Especie		Unidad (especifíquese) <sup>(b)</sup>	Valor unitario (moneda nacional)
	Nombre común	Nombre científico		

PECES


CRUSTÁCEOS


MOLUSCOS


<sup>(a)</sup> Excepto las especies para acuarios, las ornamentales y las plantas.

<sup>(b)</sup> Peso o número; si se facilitan los números, debe facilitarse también un coeficiente de conversión para obtener el peso en vivo.



## ANEXO V

Datos sobre la estructura del sector de la acuicultura <sup>(a)</sup> <sup>(b)</sup>

País:	Áreas principales de la FAO	Agua dulce		Agua salada		Total	
		Tamaño de las instalaciones <sup>(c)</sup>		Tamaño de las instalaciones <sup>(c)</sup>		Tamaño de las instalaciones <sup>(c)</sup>	
		Miles de m <sup>3</sup>	Hectáreas	Miles de m <sup>3</sup>	Hectáreas	Miles de m <sup>3</sup>	Hectáreas
PECES							
Estanques							
Tanques y canalizaciones							
Cercados y corrales							
Jaulas							
Sistemas de recirculación							
Otros métodos							
CRUSTÁCEOS							
Estanques							
Tanques y canalizaciones							
Cercados y corrales							
Otros métodos							
MOLUSCOS							
En el fondo <sup>(d)</sup>							
Por encima del fondo <sup>(d)</sup>							
Otros métodos <sup>(d)</sup>							

País:

Año:

	Áreas principales de la FAO	Agua dulce		Agua salada		Total	
		Tamaño de las instalaciones <sup>(a)</sup>		Tamaño de las instalaciones <sup>(a)</sup>		Tamaño de las instalaciones <sup>(a)</sup>	
		Miles de m <sup>3</sup>	Hectáreas	Miles de m <sup>3</sup>	Hectáreas	Miles de m <sup>3</sup>	Hectáreas

ALGAS

Todos los métodos							
-------------------	--	--	--	--	--	--	--

<sup>(a)</sup> Excepto las especies para acuarios y las ornamentales.<sup>(b)</sup> Si se crían los moluscos en cuerdas, se puede utilizar la unidad de longitud.<sup>(c)</sup> Debería considerarse la capacidad potencial.<sup>(d)</sup> Las celdas sombreadas indican que la información no es aplicable.

## ANEXO VI

**Formato de los informes metodológicos de los sistemas nacionales de estadísticas de acuicultura**

1. Organización del sistema nacional de estadísticas de acuicultura.
    - Autoridades responsables de recoger y tratar los datos y sus responsabilidades respectivas.
    - Legislación nacional sobre recogida de datos de acuicultura.
    - Unidad responsable de la presentación de datos a la Comisión.
  2. Método de recogida, tratamiento y compilación de datos de acuicultura.
    - Indicación de la fuente de cada tipo de datos.
    - Descripción de los métodos utilizados para recoger datos (por ejemplo, cuestionarios enviados por correo, entrevistas personales, censos o muestreo, frecuencia de las encuestas y métodos de estimación) de cada elemento del sector de la acuicultura.
    - Descripción de la forma de tratamiento y compilación de los datos, y duración de esta operación.
  3. Aspectos de calidad de conformidad con el «Código de buenas prácticas de las estadísticas europeas».
    - Si se utilizan técnicas de estimación para algunos elementos de los datos, descripción de los métodos utilizados y estimación de su nivel de utilización y su fiabilidad.
    - Indicación de los eventuales puntos débiles de los sistemas nacionales, las formas de corregirlos y, en su caso, el calendario previsto de dichas medidas correctoras.
-